

IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA DISEINATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUAREN 2. FASEA

EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEAREN 6. LANSAIOA:

Eguna: 2022-4-9

Ordua: 10:00-14:00

Lekua: Palmera Montero gunea

Partaideak: 38 emakume eta Talde Motorreko kideak

Gai-zerrenda:

1. Bilera kokatzea
2. Irungo Emakumeen Etxearen proiektua. Adostutakoa aurkeztu.
3. Gardentasuna, ahizpatasuna eta aniztasuna.
4. Elkartearen Estatutuak
5. Saioaren balorazioa

Akta:

1. PROZESUA KOKATZEA:

Saioarekin hasteko bilera berezi hau kokatu dugu. Azkeneko bilera, martxoaren 12an, **Etxearen kudeaketa ereduaz eta bermeez** aritu ginen.

Bertan, koordinatzeko egiturez gain, **Elkarte bat sortzeko beharra** zegoela erabaki zen. Elkarte, Irungo Emakumeen Etxean emakumeek ahots ofiziala izateko eta elkarren artean antolatzeke tresna gisa ikusi zen.

Azkeneko bilera horretan, Elkartearen Estatutuak Elhuyarren laguntzarekin eztabaidatzea eskatu zuten parte hartzaileek.

Horregatik, seigarren saio honen helburua Elkartearen Estatutuez hitz egitea izan da. Hala ere, argi utzi nahi izan da Elkarte baten estatutuak elkarteko kideenak direla, beraz, emakumeen ardura dela elkartearen sortzea. Udalak, Elhuyarren laguntzarekin egingo duen bakarra eztabaida antolatzea izango da, geratzen diren saioetan elkartearen sortzeko zereginak eta eztabaidak zerrendatzea.

Partaide berri gehiago elkartu gara apirileko saioan, deialdi berezia egin delako elkartearen sortzeko. Horregatik, garrantzitsutzat jo dugu **elkarlanerako giroa jartzeko dinamika** batekin hastea, bai eta **orain arte egindako lana aitortu eta balioan jartzea.**

Bukatzeke, saio honetan ezin izan ditugu partaide berri guztien argazkiak atera; batetik, asko zirelako eta lan-saio mardula zenez, denbora gutxi genuelako, eta bestetik, prozesuaren amaiera izanda, jada ez zuelako zentzurik, prozesu izaeratik kanpo zegoelako bilera hau.


2. IRUNGO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA AURKEZTEA

Prozesuak hiru helburu izan ditu:

- 1** Irungo Emakumeen Etxearen ezaugarri nagusiak zehaztea udalerriko emakumeekin, eragile feministekin eta emakumeen elkarteekin elkarlanean.
- 2** Emakumeen Etxean gauzatuko den tokiko erakunde publikoaren eta emakumeen nahiz eragile sozialen arteko elkarlanerako baldintzak sortzea, gutxieneko konfiantza-giro bat sortuz.
- 3** Irungo emakumeen, eragile feministen eta emakumeen elkarteen arteko harremanak landu eta sareak eraikitzea, elkarlanerako baldintzak sortuz.

**Zehaztasun gehiagorekin dago jaso abenduaren 11ko aktan.*

Prozesua elkar-lanean garatzeko, **lanerako printzipio batzuk** ezarri genituen gure artean, 2021eko abenduan:



Aurrera begira, Emakumeen Etxea irekitzean, eta elkartearen bidez elkarlana egin behar badugu, komeniko da printzipio hauek kontuan izaten jarraitzea, batez ere, **gardentasuna, ahizpatasuna eta aniztasunarenak.**

Ikusi prozesuan zehar adostu dugun Irungo Emakumeen Etxearen proiektua atxikitako PPTan.

3. GARDENTASUNA, AHIZPATASUNA eta ANIZTASUNA

Kronologikoki, “**gardentasuna, ahizpatasuna eta aniztasuna**” lantzeko ariketak proiektua aurkeztu aurretik egin ditugu saioan, baina, aktan zentzu gehiago ikusi diogu proiektuaren azalpenaren ostean jasotzea.

Bi dinamika egin ditugu.

1. ANIZTASUNAREN ZIRKULUA:


Batetik, taldearen aniztasuna eta inplikazio maila ezagutzeko borobilean jarri gara, zutik.

- *Sartu borobilerara orain arte, irailetik ona bitarte, Emakumeen Etxeko tailerren batean parte hartu duenak:* Taldearen erdia baino gutxiago izan dira borobilean sartu direnak.
- *Sartu ... Irunetik kanpo jaio direnak:* 8 bat emakume sartu dira borobilerara, gehienak Gipuzkoako beste herrietan jaioak.
- *Sartu... 65 urtetik gora dauzkanak:* 12 bat emakume sartu dira barrura.
- *Sartu... 35 urtetik behera dauzkanak:* 6 bat emakume sartu dira barrura.
- *Sartu... hilabetearen behin Emakumeen Etxeko bizitzan parte hartzeko prest zaudetenak:* Erdia baino gehiago sartu dira borobilean, baina borobiletik dozena bat pertsona geratu dira. Aztertu beharko dira arrazoiak.
- *Sartu... Zuzendaritza Batzordean parte hartzeko prest daudenak:* bost-zazpi pertsona sartu dira soilik. Tartean, gazte bakarra. Aztertu beharko da zein zuzendaritza eredu nahi dugun erakargarria izan dadin.
- *Sartu... Emakumeen Etxearen eguneroko bizitzan parte hartu nahi duenak. Guztiak sartu dira borobilean.*
- *Azken galdera, zein dago prest proiektua adostu bezala bultzatzeko, pauso bat atzera emateko, edo beste modu batera esanda, proiektuaren onerako zerbait utzi edo malgutasuna izateko.* Zalantza asko sortu dira hemen. “Zer izango da bidean utzi behar duguna?” zioen baten batek. Helburua, ariketa honekin, fisikoki atzera pauso bat ematea zen, askotan eztabaidetan aurrera pausoak emateko denok mugitu behar garelako lekuz. Guztiok gureari eutsi nahi badiogu osoki, ezingo dugu denon artean adostasunetara iritsi. Aniztasuna ez da soilik azalaren kolorearen aniztasuna. Iritzi aniztasuna, adin aniztasuna, errealitate aniztasuna ere kontuan hartu behar izango dugu.



2. ZER EMATEKO PREST NAGO?

Ondoren, bakoitzak post-it batean idatzi du “**Zer emateko prest nago nire aldetik proiektuak funtziona dezan?**” ekarpen hauek jaso ditugu:



Baten batek ez du garbi Etxeko bizitzan parte hartuko duen edo ez, denbora faltagatik, proiektua martxan jartzean konbentzitzen duen ikusi nahi duelako, edo nahiko lanpetua dagoelako. Baina gainontzeko zabalak parte hartzeko gogo bizia erakutsi du. Gehienek denbora eta parte hartzeko gogoia erakutsi dute. Askok antolatzen laguntzeko borondatea. Esperientzia eta ezagutza beste hainbatek aipatu dute.

Ariketa honen ostean Elkartearen Estatuetan topatu ohi ditugun korapiloen inguruan eztabaidatuko dugula adierazi dugu. Baina, atsedanaren ostean heldu diogu Estatutuen gaiari.

4. ELKARTEAREN ESTATUTUAK

Elkarteen Estatutuak antzekoak izaten dira normalean, eta artikulu asko errepikatu ohi dira. Horregatik, Elhuyarretik proposamen bat ekarri dugu artikulu garrantzitsuenen inguruan, guztia aldagarria, noski.

Taldekideek zaila ikusi dute eztabaida saio bakarrean amaitzea eta gaiari buruz eztabaidatzen jarraitu beharko dela adierazi dute. **Batzuek lantaldeak egitea proposatu dute, aurrera begira, Estatutuen inguruan eztabaidan jarraitzeko.**

Batak ez du bestea kentzen eta gaurko saioan ahal duguna aurreratzen saiatuko gara. Irekiak geratzen diren eztabaidak ixteko lantaldeak sortzeko proposamena irekia geratu da.

Horiz dauden artikulua ekarri ditugu landuta:

ESTATUTUEN ARTIKULUA

I. KAPITULUA:

1. artikulua: Izena
2. artikulua: Helburuak eta Jarduerak
3. artikulua: Egoitza
4. artikulua: Lurralde eremua
5. artikulua: Izaera demokratikoa

II. KAPITULUA:

Batzar Orokorra: (Asanblada)

6. artikulua: Kudeaketa organoak
7. artikulua: Batzar Orokorraren ahalmenak
- 8-9-10-11: Deialdiak nola egin.
12. artikulua: Erabakiak nola hartu
13. artikulua: Bozkaren ordezkaria

Zuzendaritza Batzordea:

14. artikulua: Zuzendaritzako karguak
- 15-19. artikulua: kargua uzteko arazoak
16. artikulua: **ROTAZIOA**
- 17-18. artikulua: Nola aukeratu
20. artikulua: Eginkizunak
21. artikulua: Erabakiak
- 22-23-24-25-26-27-28: **6 kargu mota zuzendaritzarako**

III. KAPITULUA:

BAZKIDEAK:

- 29-30. artikulua: Kide izateko
- 31-32 artikulua: Eskubide eta betebeharrak
33. artikulua: Bazkide izateari utzi
- 34-35-36-37-38. artikulua: Botatzeko zigorrak

IV. KAPITULUA: Sortzen den ondareari buruz

V. KAPITULUA: Estatutuak aldatzea

VI. KAPITULUA: Elkartea desegitea

Lau taldeetan banatu gara, talde txikiagoetan eztabaidatzeko helburuarekin.

Talde Horia:

Errata batzuk aurkitu dituzte gaztelarazko bertsioan.

Bozka ordezkatu (delegatu) daitekeen edo ez izan da eztabaida nagusia. **Haien ustez ez.** Baina telematikoki bozkatzeko aukera ematea proposatu dute.

Bazkideek bazkide izateari uzten diotenean bere lanak egingo dituen norbait bilatzearen ardura hartu beharko du. Talde-lanean lan egiteak eta ardurak partekatzeak lagunduko du bazkide batek elkartea uztean arazorik ez egoten. Lan banaketaren kontuak elkarteak barne mailan adostu ditzake nola egin.

Erabakiak nola hartu: Gehiago indartuko lukete erabakia kontsentsuz hartzeko betebeharra. Benetan azken aukera izan dadin bozketa.

Talde Urdina:

Helburuetan, Etxearen proiektua sustatzea **“ikuspegi feminista batetatik”**, **sartu.**

Izaera demokratikoari, **ahizpatasuna gehitzea.**

Bazkideen inguruan: **adin txikikoek parte hartzeko aukerak izatea** bilatu (aukera legala balego).

Erabakiak: Kontsentsuz hartzea hobe bada bada ere, bozkatu behar den momentuan, **zalantza dago delegatu daitekeen edo ez.**

Asanblada Orokoretako erabakietan, **kolektibo zaurgarriek**, edo errepresentazio txikiagoa dutenen **bozkak ponderatzea** proposatu da (LGTBI kolektiboena, gazteena, 65 urtetik gorakoena, aniztasun funtzionala dutenena...)

Talde Laranja:

Helburuetan gehitu "IMPULSAR" hitza (bultzatu). Eta 3.helburu bat jarri: "*garantizar las actividades en la Casa de las mujeres de Irun, de una manera estable y consensuado*".

Bazkideak: bazkide izateko baldintzetan Irunen enpadronatua izatea.

Bozkarekin: Elkartean denbora bat eramatea bozkatu ahal izateko. Bestetik, Bazkide izatea Asanbladak onartu behar badu, soilik urtean behin sartu zaitezke elkartean. Agian idazkariak behin-behinekoz onartu ditzake eta, gero, asanbladak berretsi.

Bozka delegatzea: bazkide bakoitzak gehienez bozka bat izatea delegatua eta delegatutako bozkak ez izatea bilerako partaideen %20 baino gehiago.

Ez-ohizko batzarrak deitzeko: 10 bazkide gutxi da eta ehuneko bat jartzea proposatzen da.

Bileren deialdiak egiteko normalean 8-10 egun lehenago deitzea. Ez-ohizkoak direnean agian denbora gutxiagorekin.

Zuzendaritza: ordezkiena arraro geratzen da, eta proposatzen dute: bi lehendakari, bi idazkari, bi diruzain... bi bokal jartzeko aukera ere aipatu da.

More-gorriak:

Eskatu dute argitzeko "osatzeko" edo "complementar" hitzaren esanahia. Ulertu da.

Ekintza motetan, jarduera kulturalak gehitzea proposatu da.

Bazkideen atalean, gazteleraz, maskulinoan dago idatzita (itzultzaile automatikoak eginda baita). Zuzenduko da.

Aipatu diren ekarpen orokorrak txertatuko ditugu Estatutuen proposamenean eta aktarekin batera bidaliko zaie partaide guztiei. Hala ere, askatu gabeko korapiloak daude oraindik: bozkak ordezkatu ahal izatea eta bazkideak Irunen erroldatua egon behar izatea, batez ere.

Bozka delegatzeari buruz:

- Gaur egun telematikoki bozkatu daiteke. Estatutuetan jaso beharko litzateke aukera hau.
- Delegatzea utzikeriaren isla izan daiteke, ez parte-hartzearena. Hori ekiditeko, eta presentzialtasunari garrantzia emateko, bilerak aurrez aurrekoak izatea bultzatu behar da. Telematikoki bozkatzeak utzikeria edo distantzia jar dezake?
- Zaila da denok parte-hartu dezakegun ordutegiak jartzea, agian, benetan ezin duzu parte hartu. Denon iritzia jasotzeko bozkak delegatzeak erraztuko luke beste batzuen iritzia ezagutzen.

- Agian gai batzuk delegatu daitezke eta besteak ez (Junta aukeratzea bai, baina eztabaiden menpekoak ez).
- Bozka delegatzea zure kidearen baitan konfiantza jartzea da, berak dioena bozkatuko dut nik ere.
- Bazkide bakoitzak bozka bat delegatua izateak pertsona gehiagoren artean erabakia hartzea ekar dezake, delegatzen duen horrek proiektuari jarraipena emateko modua.
- Bilatu behar dira moduak elkartea ez "asaltatzeko", ez egoteko lehorreratze bat.

Bazkide izateko baldintza Irunen Erroldatua egoteari buruz.

- Irungo Emakumeen Etxea izanik, Irungo emakumeen hartu beharko lukete parte proiektu honetan. Bestela, eskualdeko gatazkak Etxean errepikatzeko arriskua egon daiteke.
- Irunen erroldatua ez dagoen emakume askok egiten dute Irunen bizi. Batzuk Madrilan erroldatuta egon daitezke Irunen bizi arren, paper kontuengatik, edo lan kontuengatik. Hobe da ez eskatzea erroldarik.
- Donostiako Emakumeen Etxeko bazkide dira Irungo emakume batzuk, eta positiboki baloratzen dute, proiektua gertutik ezagutu eta bertan parte-hartzeko aukera ematen diotelako nahi duenari.
- Errolda ezin du elkarreak eskuratu, udalarena baita.
- Eskaera orrian ez dago eskatu beharrik, orduan, zertarako eskatu.

Saioaren amaierara iristen ari ginenez taldearen iritziak nola kokatzen diren ikusteko Termometroaren dinamika egin dugu. Dinamizatzaileraren ezkerrean kokatu dira BAI pentsatzen dutenak, EZ pentsatzen dutenak eskubiko aldean eta, tartean, zalantza dutenak.

“Bozka delegatua, bazkide batek bozka bat delegatua izateko aukera emango dugu?”

Gehiago zabalak baiezkoaren alde egin du. 3k izan dituzte zalantzak eta 7k ezetz esan dute. Hala ere, zer gaietarako bai eta zein gaietarako ez zehaztekotan geratu dira.

“Estatutuetan jaso daiteke Bazkide orria betetzea, baldintza moduan. Eta ondoren argitu soilik Irunen erroldatuta daudenek parte hartu dezaketen edo irekia utziko den.”

Gehiago handiak baietz esan du. Ezezkoan pertsona bakarra azaldu da, eta baten batek zalantzak izan ditu.

“Legeak uzten badu, bazkideak 16 urtetik aurrerakoak izan daitezkeela jasoko dugu Estatutuetan?”

Baiezko borobila. Kotsentsua dago.

Aipatutako guztia aktan jasotzeaz gain, **Estatutu proposamen bat bidaltzeko konpromisoa hartu dugu. (Ikus atxikitako dokumentua)**

5. LANSAIOA BALORATU eta HURRENGO PAUSOAK:

Ez dugu saioa baloratzeko astirik izan. Elkartearen saioaren amaieran, termometroaren dinamikan ari ginela galdetu dugu:

“Zure ustez saioak merezi izan du?”

Taldea osoa kokatu da baiezkotan pertsona bakarra ezik. Bere ustez, saioa gaizki planteatua zegoela adierazi du. Gainontzekoen ustez baliagarria izan da.

Bukatzeko, prozesuko azken saioa noiz izango den gogorarazi dugu: maiatzaren 14ean.

Bertan landuko ditugun gaiak izango dira:

1. Proiektua adostua dugu. Prozesua itxi eta baloratzea falta zaigu.
2. Etxearen izena adosteko izen proposamenak ezagutarazi eta nola aukeratuko den kontatu.
3. Etxea ireki bitartean, Elkartearen sortzeko pausoen inguruan hitz egin, eta elkartearen sortzeko lantaldea sortu.



EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEKO PARTAIDEAK:

EMAKUMEEN ETXeko GOGOETA GUNeko PARTAIDEAK			
Ana Calzado	Cristina Ubani	Estíbaliz González	Lucia Elizondo
Lucia Iraundegui	M ^a . Ángeles Silva	Maite Irastorza	Maite Vergara
Maria Luisa Urtxegi	Maria José Romero	Maria Luz Nuñez	Maria Ruiz
Maribel Castelló	Maritxu San Pedro	Nahiara Errazkin	Olga Rivas
Pilar Gracenea	Rosa Valiente	Rosario Campo	Pakita Etxegoien
Begoña Zaballa	Ana Pérez	Raquel Calvo	Ana Gálvez
Andrea Santos	Marisa Soto	Celia Bernal	Koro Bidaurreta
Nekane Narbaiza	Estibaliz Luis de Cos	María Martín	Rebeca Leston
Agustina Gaztelumendi	Maria Aranzazu Estivariz	M ^a . Eugenia Ubani	Maria Josefa Olazabal
Marian Gonzalez	Mari Jose Gonzalez		

Proiektuko arduradun politiko teknikoak		Interpretea
Miren Echeveste (arduradun politikoa)	Koldo Zabala (arduradun teknikoa)	Amaia Imaz

Proiektuko bideratzaileak (Elhuyar)	
Joxepa Bornaetxea	Eli Etxabeguren